



BIZIKLETAZ

31. zenbakia
2020ko azaroa
Doako argitalpena



Rafaela Romero
diputatuari elkarrizketa



Zestoako bidegorria
luzatzeko lanek aurrera
segitzen dute



Mugikortasun
Iraunkorraren Triatloia



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Departamento de Movilidad
y Ordenación del territorio



ORAIN
GIPUZKOA

Rafaela Romero Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Foru Diputatua

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Foru Diputatu izendapena jaso dueneko 2019 urte honen itxieran, Rafaela Romerok zuzentzen duen taldearen helburu eta eginbehar garrantzitsuenak aletu ditu.

Nola baloratzen dituzu aurreneko hilabete hauetako Departamentuko buru gisa, eta zein dira legegaldi berrirako erronkak?

2019ak inflexio puntu bat irudikatu behar du: legegaldi aldaketa, aldaketa baita ere zuzendaritza politikoa, eta erronka berriak. Departamentuaren gurari handienetako bat da bizikletaren erabileraren aldeko sustapenari berrindartuta ekitea, bai eta bizikletak mugikortasun jasangarriaren esparruan egin dezakeen ekarpen orori ere. Baina, lehenik eta behin, beharizanen inguruko analisi eta diagnostiko zorrotza egin behar dugu; zertan huts egin dugun ikusi, eta akatsak zuzendu. Lurraldearen Arloko Plana (LAP) berrikuspena bultzatu nahi dugu, hobetzeko eta optimizatzeko, jakin baitakigu eta abiapuntuzat jotzen dugu hauxe izan dela Gipuzkoako lorpen politiko azpimarragarrienetakoak. Askok dago egiteke, eta bizikletaren erabileraren sustapena Gipuzkoako Mugikortasun Jasangarriko Estrategiaren baitan txertatzeko asmo irmoa dugu. Ezinbesteko zutabeetako bat da, zalantzarik gabe.

Nolako lekua du bizikletak gipuzkoar jendartearen eta bertako hiritarren egunerokoan?

Egia da gero eta paper garrantzitsuagoa duela bai mugikortasunari dagokionez eta baita asialdi tesuinguruetan ere; esparru turistikoan leku nabarmena du gainera, hortxe ditugu Bide Berdeak... baina are nagusiagoa izan beharko luke. Halakoxea da guretzat erreferentziazkoak diren herrialde europar guztietan eta, hain justu, Madrilgo COP25 Klimaren Gailurreko mahai-inguru eta eztabaida saio askotan izan da hizpide. Hortaz, gure eginbeharren artean dago Gipuzkoan bizikletari begiratzeko dugun modua zabaltzea. Oinezkoentzako bideekin eta partekatutako garraio publikoarekin batera, oinarritzko ardatza da, gehiagotan mugitu behar dugu oinez, bizikletaz, eta beharrezkoa denean trenaz edota autobusez. Horretarako, mugikortasunaren eta intermodalitatearen ikuspegitik gainbegiratu behar



**“Bizikletaz mugituz,
beroketa globalaren aurka
borrokatzen dugu”**

dugu zein ibilbidetan txertatu dezakegun bizikleta garraio bide bakar edota osagarri modura, mugikortasun jasangarriko estrategiaren baitan. Lagun bat datorrit burura, Unai. Gaztea da, Intxaurrondon bizi da, eta egunero joaten da Gasteizera, unibertsitatera. Intxaurrondotik dbusez jaisten da autobus geltokira. Bertan Donostia-Gasteiz hiriartekoa hartzen du, eta Gasteizko autobus geltokian bizikleta izaten du aparkatuta, campusera mugitzeko... eta, eskolak amaituta, alderantzizko bidea egiten du. Horrelaxe pentsatzen dut nik bizikletaren integrazioa geure bizitzetan eta desplazamenduetan.

Bizikletazalea zara? Bizikletaz mugitzen zara?

Ez naiz bizikletazale amorratua, beharbada gehiago aritzen naizelako beste kirol batzuetan, korrikan adibidez. Baina lagunekin bizikletaz txangoren bat egiteko aukera sortzen denean, egiten dut, eta gustura asko gainera! Bi urtez hiriko Erdialdean eduki nuen bulegoa, eta garai hartan bai egunero joaten nintzen bizikletaz. Orain, ordea, lantokiaren kokapena desberdina da, eta praktikoagoa zait hona autobusez etortzea. Dena dela, bizi naizen hiri zoragari honetan, Donostian, mugitzeko era aparta eskaintzen du bizikletak.

COP25 aipatu duzu. Izan ere, bizikletaz ibiltzea CO2 igorpenak murrizteko modu praktiko eta eraginkorra da.

Klima aldaketaren aurkako borroka Gobernuen ardurara da, orain arte, kasu askotan, alboratuta izan duten erroka bat. Baina behar-beharrezkoa da guztiok ulertzea hau norbanakooi dagokigun aukeria ere bada, gutako bakoitzak baduela bere lekutik honi ekarpena egiteko aukera. Bizikletaz mugituz, beroketa globalaren aurka borrokatzen dugu. Kotxe pribatuaren ordez garraio bide publikoen aldeko apustua egiten dugunean, edo alde batetik bestera oinez mugitzea erabakitzen dugunean, erroka kolektibo honen aldeko geure alea ipintzen ari gara. Gure bizi-kalitatea hobetzen dugu, eta baita ingurukoena ere. Bizikletaz edota oinez ibiltzea, esaterako, ohitura oso osasungarria baita, jendarte osoaren ongizateari eragiten diona gainera. Borroka honek, hortaz, publikoa izan behar du, instituzioetatik egin beharrekoa; eta, aldi berean, pribatua, hiritarregandik ere badatorrena.



Hilabete hotz, haizetsu eta euritsuak datoz orain... Zein mezu zabal dezakegu ulertarazteko neguan ere posible dela bizikletari eustea?

Unaiaren adibidera joko dut berriz. Berak zira eta euritako galtzak dauzka horrelako egunetan ere inongo arazorik gabe bizikletaz mugitzeko. Gasteizen elurra egiten duenerako arropa bereziak ere ba omen dauzka! Posiblea da. Baikorrak izan behar dugu. Egunero egiten ez badugu ere ez da ezer gertatzen, ez dugu gure burua zigortu behar horregatik. Baina guztioi mesede egiten digun garraio bidearen aldeko hautua egin duen pertsona horietako bat bazara, izugarri eskertuta gaude, eta animatu zaitez neguan ere halaxe segitzera! Egia da nagikeria handiagoa eragin dezakeela, baina urte luzez hiri honetan bizikletaz ibili ahal izateko beharrezko azpiegituren alde borrokan aritu diren elkarteek hilabete zailago hauetan ere posible izan dadin egin dute aldarri. Gainera... Donostian ere, ekaitzaren ostean barea dator, eta eguzkia irteten da.



Zestoako bidegorria luzatzeko lanek aurrera segitzen dute



Iraeta eta Narrondo artean eraikiko duten zati berriak Urolako Bide Berdea osatzeko balioko du. Horretarako, bi tunel egokituko dituzte Iraeta eta Arroa Behea artean, lau kilometro gehiago zabalduko dituzte Urolako trenaren plataforma zaharraren bide-tik, eta sigi-sagan trazatutako malda batek lotuko du hori Narrondorekin eta, ondorioz, Zumaiarekin.

Urolako Bide Berdearen azken tarteen gaineko lanak aurrera doaz. Luzatze proiektuaren bi faseak amaitutakoan, 36 kilometroko bidegorri zati berri batek Zumaia eta Zumarraga elkar lotuko ditu, bizikleta nahiz oinezkoentzat.



Une honetan, Iraetatik Arroa Behea geltokira bitarteko tartean eraberritu beharreko bi tuneletan ari dira lanean. Aurrenekoan, Iraetakoan (80m), behera etorritako bobeda altxa eta sarbideetako bat zabaltzea da helburua. Bigarren tunelaren irekitzea ere konplexuagoa izango da, barne-eraiaketek guztiz buxatu dituztelako sarrerak eta, momentuz, zaila delako barruko egoeraren ebaluaketa egitea berre-raikuntzarako jarraitu beharreko pausoak erabakitzeke. Lehenengo zati honek, lau kilometrokoa orotara, Urolako trenaren plataforma zaharraren ibilbidea jarraituko du Arroa Behea geltokiraino; eta bertan abiatuko dute obren bigarren fasea.

Tarte berri hori Zumaiaraino doan Narrondoko bidegorriarekin konektatzeko, %8ko malda izango duen aldapa bat eraikiko dute sigi-sagan, bi muturren arteko kota-diferentzia gaindituz. Mugikortasuneko Foru Departamentuak eta Zestoako Udalak aukera horren alde egin dute, hain justu, uste dutelako alternatiba egingarriena eta jasangarriena dela. Hainbat urtez luzatuko den proiektu handi hau burututakoan, Urolako Bide Berdeak bailara osoa elkar lotuko du, Zumarragatik Zumaiarainoko oinezko nahiz bizikletentzako bidegorri batekin konektatuta. Gainera, Azpeitia-Urrestilla adarra ere osatuko dute, Azpeitiako Udalarekin adostutako akordioari esker lanak martxan baitira honezkerok.



Mugikortasun Iraunkorraren Triatloia

Gipuzkoako edozein gunetatik Andoainera garraio publikoz iritsi, bertatik Plazaolako Bide Berderaino oinez segitzea eta, azkenik, Bide Berdearen zati bat bizikletaz egitea edota bizikletak konpontzeko tailer batean parte hartzea. Horixe Mugikortasuneko Foru Departamenduak Bigarren Hezkuntzako ikasleei luzatu dien erronka!

Leitzarango Bisitarien Etxearekin elkarlanean, Gipuzkoako Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Foru Departamenduak lurraldeko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publiko zein pribatuetaiko ikasleei zuzenduriko jarduera erakargarria jarri du martxan.

Datozen asteetan zehar, taldeka, ehundaka gazte hasiko dira lau ordu inguru irauten duen jarduera honetan. Helburua lurraldeko edozein herritatik Plazaolako Bide Berderaino iristea da, garraio publikoa erabiliz lehenik, oinez gero, eta azkenik bizikletaz; horra hor triatloia. Hasiera puntutik Andoainerainoko tartea trenaz edota autobusez egingo dute neska-mutilek, eta handik Plazaolako Bide Berderainoko eta ibilbideko lehen bi kilometroak oinez osatuko dituzte. Orduan bi taldetan banatuko dira: batzuek hirugarren tartea bizikletaz egingo dute –Bide Berdearen zati bat–, eta besteak bizikletak konpontzeko tailer batean trebatuko dira.



Ekimen hau Gipuzkoako gazteak iraunkortasunean hezteko asmoz abiatutako sentsibilizazio kanpainaren parte da, belaunaldi berrien artean jarrera arduratsuak sustatu nahi dituztelako ingurumen, ekonomia nahiz gizarte alorretan. Horretarako, kirola eta osasuna erdigunean kokatu ditu Mugikortasuneko Foru Departamenduak, egitasmoaren beraren ardatz ez ezik, gipuzkoarrentzako bizi-eredu modura.



Honezkero DBH eta Batxilergoko maila ezberdinetako 300 ikaslek eman dute izena ekimen honetan parte hartzeko, baina gehiago izango direla aurreikusi dute eta, hortaz, epea zabalik dago oraindik. Leitzarango Bisitarien Etxearen bitartez egin daiteke, telefonoz (943 300 929) nahiz posta elektronikoz (info@leitzaranoandoain.com).

Plazaolako Bide Berdeko errealitate turistikoa aztergai

Bisitarien %40 ziklistak dira, horietatik %47 bizikletaz mugitzen dira etxetik Bide Berdera. Erabiltzaileen %72 beste probintzia eta autonomi erkidego batzuetatik datoz, eta horietatik %60k Gipuzkoan hartzen dute ostatu. Plazaolako Bide Berdearen inguruko bi ikerketak argitara ateratako datuak dira hauek, eta hain justu Mugikortasuneko Foru Departamentuak Plazaolaren kudeaketa ereduaz hausnartzeko antolatu duen lan saion aztertu dituzte.

Plazaola-Leitzarano Bide Berdearen gaineko instituzio arteko kudeaketa aztertzeraz bideratutako topaketa antolatu du Mugikortasuneko Foru Departamentuak, alde biko gestioa ezinbestekotzat jotzen dutelako azpiegituraren jarraikortasun jasangarria bermatzeko, eta baita kultura- nahiz natura-ondare hau erreperatu eta zaintzeko. Leitzarango Bisitarien Etxean egindako bilera horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko lankidetzaren garrantzia azpimarratzeaz gain, turismo jasangarriaren eta komunikazioaren inguruko azterketan espezialdutako Bizibiziki enpresako Miren Arrigain aholkulariak eginiko bi ikerketa aurkeztu dituzte.

Aurreneko txostenak Plazaolako Bide Berdeko erabiltzaileen profila deskribatzen du, eta bigarrenak

bisitari horien mugitzeko moduari egiten dio erreferentzia. Bi azterlanak kontuan hartuta ondoriozta daiteke tipologia ugariena kirol-bizikletaz ibiltzen diren txangozaleak direla, egun bakarerrako eta hurbiletik mugitzen direnak: bisitarien %40 ziklistak dira (%95 mountain bike moduko bizikleta erabiltzen dute), horietatik %47 bizikletaz iristen dira Bide Berdera, eta, nahiz eta %72 beste probintzia eta autonomia erkidego batzuetatik etorri, Gipuzkoan hartzen dutenez ostatu, gertuko erabiltzailetzat jotzen ditu ikerketak. Horien guztien %56k hiruzpalau ordu pasatzen dituzte Plazaolako ibilbidea edota honen zati bat osatzen.

Informazio hori aintzat hartuta, Mugikortasuneko Foru Departamentuak interesgarriztat jo du beste-lako garraiobide batzuk sustatzea Plazaolara iristeko alternatiba gisa. Horretarako, komunikazio estrategia eraginkor baterantz bideratuko dituzte ahaleginak, erabiltzaileek gaur egun aukeran dituzten beste baliabide batzuk ikusarazteko. Gainera, bizikletaren aldeko hautua are gehiago errazteko, alokairu zerbitzua indartuko dute. Hala, Leitzarango Bisitarien Etxean martxan dagoenaz aparte, Andoainen ere bizikletak hartu eta uzteko espazio berri bat egokituko dute.

